Denon ardura delako, ondo dihardugu!

Bergarako Udala

Bergara, 2015eko urtarrila

ZORIONAK

Dagoeneko Bergaran hondakinen gaineko sistema berriarekin ia urtebete daramagu. Otsailaren 4an jarri genuen abian eta orrialde hauetan iraila arteko gaikako bilketaren datuak eman nahi ditugu; eta aldi berean, **bergararrak zoriondu.**

Denon ahaleginez ondoko bilketa emaitzak izan ditugu ehunekotan:



Otsailetik irailerako tartean gaikako **bilketa osoan % 81,6ko emaitza lortu dugu.** Dena den, fokua etxeko hondakinetan jartzen badugu, honako datuak izan ditugu 2013an eta 2014an:



NABARMENTZEKOAK:

- **Errefusa**ri dagokionez, 2014ko urtarriletik irailera bitartean, eta 2013ko tarte berarekin alderatuz, **bi heren gutxiago** bildu dugu.
- **Ontzi arinetan, igoera nabarmena** izan dugu. Bikoitza biltzera iritsi gara urte-tarte honetan. 2013ko urte osoan **234.833 kg.** bildu ziren Bergaran; eta urtarriletik irailera bitartean, berriz, **329.753 kg.**

Azpimarratzekoa da datu honek hirigunea, landa-eremua eta ostalaritza ez ezik, industriako bilketa ere barne hartzen duela.

Datuak osotasunean www.bergara.net -en aurkituko dituzu.

Autokonposta eta **auzokonposta** egiten duten **familia bergararrak** ere **520** dira dagoeneko.

Dena den, sistema berria dugunez, badaukagu zer hobetu. Ondorengo albiste eta oharretan jasotzen ditugu hobekuntzak eta akatsak zuzentzeko oharrak.

Animo! Eta eskerrik asko.

HONDAKINEN KUDEAKETA - INFORMAZIO BULEGOA

Bergarako Udaletxea, San Martin Agirre plaza

Astelehenetik ostiralera: 10:00-14:00 • Astelehenetan: 15:00-19:00

atezate-bergara@debagoiena.com • 943 76 46 18 / 688 657 243

Albisteak

Edukiontzi berriak

Ontzi arinak eta papera eta kartoia jasotzeko edukiontzi berriak erosi ditu Debagoieneko Mankomunitateak; **urtarrilean zehar ordezkatuko dira zaharrak.** Hori dela-eta, kasu batzuetan edukiontzien kokapen-aldaketak gerta daitezke; orokorrean posizio-aldaketa soilak dira, egun dauden guneak mantenduz.

Oihalak botatzeko ere edukiontzi berriak jarriko dira hainbat puntutan: San Lorentzo, Osintxu, San Antonio, Bideberrin. Batzuk jarriak daude jada.

Traste zaharrak: lurrean zeinua edo marka bat

Edukiontzi berriak jartzearekin batera, **traste zaharrak edo hondakin handiak ateratzeko puntuak** zeintzuk diren zehaztuko dira, **lurrean zeinu edo marka batekin.**

Noiz eta nola atera? Asteartetan, 20:00-22:00ak bitartean. *(Jaieguna izanez gero, ostegunera pasatuko litzateke).*

Aldez aurretik 943 711938 telefono-zenbakira deitu eta mezua utziz, (zer eta non aterako den, helbidea zehaztu).

Hondakin handi hauek herrigunean jasotzen dira, baita Osintxu, Ubera eta Angiozarreko kalean ere. Landa-eremuetan ordea ez.

Hobetzekoak eta kontuan izatekoak

Gutxiengo batek ez ditu hondakinak behar bezala ateratzen, eta horrek herria itxuragabetzen du hainbat puntutan. Gogora ekarri behar dugu, halaber, **lurrean eta kontenedore kanpoan** uzten dena **-gaika sailkatuta badago ere- errefusa bezala jasotzen dela,** eta ondorioz zabortegian bukatzen duela.

Hobetzekoak eta kontuan izatekoak

Landa-eremuetan kokaturiko **ekarpen-guneak** (edukiontzi-guneak), **landa-guneko etxebizitzen bilketa-puntuak dira, ez zabortegiak.**

Kartoia ez da edukiontzien kanpoan utzi behar. Komertzioek kartoi komertzialaren aparteko bilketa-zerbitzua dute (astelehen, asteazken eta ostiral goizetan). Herritarrek kartoia edukiontzi barruan sartu behar dute.



Organikoa eta errefusa, edukiontzietan

POLTSA SOILIK ATERAZ GERO, ERREFUSAREKIN BATERA JASOTZEN DA, KONPOSTAGARRIA IZAN ARREN.

ORGANIKOAREN ONTZIAREN BARRUAN POLTSA JARRI BEHAR DA? BI AUKERA:

1. **Zuzenean ontzira bota** (sukaldeko papera jar daiteke ontziaren azpialdean nahi izanez gero).
2. **Poltsa konpostagarria erabili (zabalik utzi).**

Konpostagarria ez den beste poltsa bat erabiliz gero, edukiontzira **ondo lotuta** egon behar da, husten den unean erori ez dadin (plastikoa ez da konpostatzen!).

Beti ere **hobe aurreko bi aukeretako bat** egitea!

Errespetatu ontziak jasotzeko ordutegia!. Behin hustuta, **ontziak ahalik eta azkarren jaso** behar dira.

Kontuan izan!

Nola katiatu:

Gogoratu ontziak atzeko aldean duten euskarritik zintzilikatu behar direla!

Biltzaileak ontzia hustu ondoren kirtenetik zintzilikatuko du, horrela ontzi beteak eta hutsak desberdintzen ditu, kirtenetik zintzilikatzen baduzu nahastu egin daiteke eta batu gabe utzi.

Non katiatu:



Edukiontzia utzi eta jasotzean norberaren kodea ondo begiratu!

Ez erreparatu soilik zenbakiei, ezinbestekoa da hizkiak ere begiratzea!

Autokonposta eta Auzokonposta

Zuk ere etxeko hondakin organikoa konpostatu egin nahi duzu?

Eman izena eta Udalak irakatsiko dizu nola egin eta horretarako behar dituzun materialak doan emango dizkizu. Udalak aholkularitza eta jarraipena ere eskaintzen ditu. Hondakin gutxiago sortuko duzunez, hondakinen bilketa fakturan bonifikazio txiki baten aukera ere izango duzu.

Konposta egin nahi duzu baina lursailik ez daukazu?

Eman izena zuk ere!!

Aukeratu ondoko taulatik egokien datorkizuna.

Informazio gehiago:

www.bergara.net

943 77 91 72 / 943 77 91 50 telefonoetan.

Auzokonposta guneak

Gunea	Urtea
Labegaraieta	2012
Ikerleku	2013
Boni Laskurain	2013
Bolua	2013
Espoloia	2013
Osintxu	2014
Ubera	2014
Angiozar	2014
Ozaeta	2014
Ostetako Bidea (Bidekurutzeta atzekaldea)	2014
Ernai	2014
Laudantz (Goenkaletik gora)	2014
Burdinate Berria	2015
Martokoa Berria	2015
Ibargarai Berria	2015

Autokonposta ikastaroa emango da Urtarrilak 28, 18:30ean Pleno Aretoan.

Larrialdi guneko telefono zenbakia: 943 25 22 88

LARRIALDIGUNEAK: Noizbait hondakin organikoa edo errefusa dagokion egutegi eta ordutegiaren barruan ezin baduzu atera, larrialdi gunea erabili dezakezu. Larrialdi gunera sartzeko 943 25 22 88 telefonora deitu eta zure kodea eman; ematen zaizun kodearekin atea zabalduko da.